

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**ORDIZIAKO UDALA**

*Udal Baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudiaren behin betiko onarpena.*

Osoko Bilkurak, 2018ko martxoaren 1ean egindako ohiko deialdian, onartu zuen Udal Baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudiaren hasierako onospena. Arauzko informazio publiko-rako epea inolako erreklamazio eta oharpenik gabe bete ondoren, irmoa eta behin betikotzat jotzen da. Behin betiko testua ondorengo hauxe delarik.

Hori guztia argitaratzen da Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betez eta bertan aurreikusitako ondorioetarako.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Horrez gain, agindu horretan adierazitakoari jarraiki, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik berraztertze-ko errekurtsoa jartzeko eskubidea izango dute doakienek nahi izanez gero, Udal Batzarrean, aipatu erabakiak eta ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita hilabeteko epean.

Ordizia, 2018ko maiatzaren 16a.—Alkatea, José Miguel Santamaria Ezeiza. (3538)

*Ordiziako udalerrian udal baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudia. (Ordiziako Baratze parkea).*

Udalak herritarrei eremu publikoa erabiltzeko aukera emango die, eskaintza ekologikoaren eta pedagogikoaren baitan. Herritarrek lurra lantzeko aukera izango dute eta lanketa horren ondorioz kontsumo pertsonalerako produktuak erdietsiko dituzte. Baratze hauek herritarren aisialdian eta ongizatean izan dezaketen onura baloratuz proiektatzean dira. Gainera, bide emango du baztertutako gizarte sektoreak sozialki nahiz pertsonalki integra daitezen. Esan gabe doa proiektu honekin baserriko munduaren eta herriaren arteko lotura nabarmentzen dela. Naturarekiko eta gure lurrarekiko errespetua sustatu nahi da, naturak eskaintzen digun aberastasuna baloratuz. Gure kulturaren sustraiei heldu eta horiek berreskuratzeko apustua da.

## I. KAPITULUA

## PRINTZIO OROKORRAK

## 1. Helburua.

Araudi honen helburua da Ordiziako Baratze Parkeko lursailen erabilera, gozamina eta aprobetxamendua arautzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea eta, halaber, baratze horien esleipen-prozedura, baratzetako laborantza-jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

**AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA**

*Aprobación definitiva del Reglamento para la adjudicación y gestión del parque de huertas municipales.*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 22 de marzo de 2018, de aprobación inicial del Reglamento para la adjudicación y gestión del parque de huertas municipales, siendo el texto definitivo el que se inserta a continuación.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo dispuestos en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y a los efectos en él previstos.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación del Reglamento en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo, los referidos interesados podrán interponer contra la presente resolución, recurso de reposición ante el Pleno del Ayuntamiento, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ordizia, a 16 de mayo de 2018.—El alcalde, José Miguel Santamaria Ezeiza. (3538)

*Reglamento regulador de la adjudicación y gestión de las huertas municipales de Ordizia. (Ordiziako Baratze parkea).*

Las huerta proyectadas se establecen como una oferta pedagógica y ecológica a disposición de los ciudadanos y las ciudadanas, que acerque o permita al ciudadano y a la ciudadana de a pie disponer de un espacio público donde cultivar la tierra y obtener los frutos de la misma para consumo personal. Las huertas se proyectan como una alternativa de ocio y de bienestar que permita la integración social como personal de sectores sociales excluidos. Se trata de una actividad abierta a la ciudadanía en general pero que prioriza la concesión a los grupos más necesitados de la sociedad. Se trata de un nexo de unión del caserío y el pueblo, una apuesta por inculcar el respeto por la naturaleza, valorar la grandeza de la riqueza natural, devolver de alguna manera el arraigo de nuestra cultura a la tierra que nos alberga.

## CAPÍTULO I

## PRINCIPIOS GENERALES

## 1. Objetivo.

La presente normativa tiene por objeto la regulación de las condiciones necesarias destinadas a reglamentar el uso, disfrute y aprovechamiento de las parcelas en Ordiziako Baratze Parkea, así como regular el procedimiento para la adjudicación de las mismas, la regulación de la actividad de cultivo de los huertos y la responsabilidad de los y las usuarias.

Baratzeen kudeaketan eta erabileran emakumezkoen eta gizonezkoen artean aukera eta eskubide berdintasuna bermatuko dira.

Herritarren artean ingurumen-heziketarako eta partaidetzarako balio batzuk sustatzea, eta aldi berean, bizimodu aktibo bat erraztea.

Gizarte izaerako proiektu iraunkor baten oinarriak finkatzea eta hori garatu dadila sustatzea, eta horrekin batera, herritarren arteko harremanak sustatuko dituen esparru egoki bat sortzea.

Premian edo larritasunezko egoeran aurkitzen diren kolektibo edo pertsonen beren kontsumo pertsonalerako erabiliko dituzten elikagaien laborantzarako eremu arautu bat eskaintzea.

Baratze Parkearen erabiltzaileen arteko lankidetzak aukera eskaintzea.

Tokian tokiko laborantza modu gisa nekazaritza ekologikoaren irizpideak eta jarraibideak zabaltzea eta praktikan jartzea.

Baratze-espezie tradizional autoktonoak ekoizti eta berreskuratzea daitezela erraztea.

Kontsumo-kultura iraunkorrako bat sustatzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak herritarren esku jartzea.

Nekazaritza ekologikoari buruz, konpostaren ekoizpenari buruz, euri-uraren aprobetxamendu-sistemei buruz eta abarri buruz beharrezkoa den heziketa ahalbidetzea.

Ikastetxeei alternatiba bat eskaintzea ingurumen-heziketarekin loturiko balioak gazteen artean zabaltzeko, ekimen honen inguruko jarduerak eginez.

## 2. Aplikazio-eremua.

Araudiaren aplikazio-eremu objektiboak Ordiziako Baratze Parkearen barruan dauden lursail guztiak hartzen ditu.

Eremu subjektiboari dagokionez, araudi honetan jasotako arauak aplikatuko zaizkie Ordiziako udalerrri honetan erroldatuta dauden eta gutxienez deialdia argitaratu aurreko bi urtetan bertan bizi diren pertsonen, baldin eta aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko, gozatzeko eta aprobetxatzeko aukera badute eta Araudi honetan baratzeak adjudikatzeko aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte.

## 3. Definizioak.

a. Erabiltzailea: Lizentziaren titularra edo esleipenduna: Lagatzen den ondasuna erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Hemen interesa duten ondorioetarako, baratzearen gaineko lagapenaren onuraduna.

b. Fruituak: Baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, eretitik eta lur-lanketaren ondorioz lortutako produktuak, nola baitira barazkiak, frutak, lekariak eta abar.

c. Elementu komunak: Baratzetako lurzatiaren elementu propioak edo ezarritakoak dira eta erabiltzaile batzuk edo guztiak erabiltzen dituztenak, hala nola, pasabideak, itxiturak, hodiak, deposituak, mugatzeko jarritako pibotak eta abar. Era berean, elementu komuntzat jotzen dira laborantzako lanabesak eta erabiltzaileen esku jartzen diren gainerako tresnak.

d. Erantzukizuna: Baratzearen erabiltzaile bakoitzak bere gain hartua duen erantzukizuna, nork berea eta erabiltzen duen lursail zatiaren arabera.

e. Baratze ekologikoa: Bakoitzak duen lursail zatia, eta zati horren gainean erabiltzen da erabili, gozatu eta aprobetxatzeko erabiltzaile bakoitzak duen eskubidea; aisialdirako baratze ekologiko ere deitzen zaie.

f. Lurzatia: Baratzeak kokatuta dauden lursailak.

Garantizar la igualdad entre mujeres y hombres en el trato y en los derechos de las personas.

Fomentar una serie de valores de educación y participación ambiental entre la ciudadanía, favoreciendo al mismo tiempo un estilo de vida activo.

Sentar las bases e impulsar el desarrollo de un proyecto sostenible y de carácter social, creando al mismo tiempo un marco apropiado para fomentar la interrelación entre la ciudadanía.

Proporcionar a colectivos desfavorecidos o a aquellas personas que se encuentren en una situación delicada, un espacio regulado para el cultivo de alimentos destinados a su consumo personal.

Ofrecer la posibilidad de un trabajo en colaboración entre las y los usuarios del Baratze Parkea.

Difundir y poner en práctica pautas y criterios de agricultura ecológica como forma de cultivo a nivel local.

Favorecer la producción y recuperación de especies hortícolas tradicionales autóctonas.

Fomentar una cultura de consumo más sostenible y poner a disposición de la ciudadanía los medios necesarios para ello.

Facilitar la formación necesaria sobre agricultura ecológica, producción de compost, sistemas de aprovechamiento del agua de lluvia etc.

Ofrecer una alternativa a los centros escolares para inculcar valores de educación ambiental entre la juventud, mediante la realización de actividades en torno a esta iniciativa.

## 2. *Ámbito de aplicación.*

El ámbito de aplicación objetivo del reglamento: Todas las parcelas que están dentro del Baratze Parkea de Ordizia.

Ámbito subjetivo: Las personas empadronadas en el Municipio de Ordizia y que efectivamente residan en la localidad durante al menos dos años antes de la publicación del anuncio de la convocatoria, en el caso de que puedan utilizar, gozar y aprovechar las huertas ecológicas y cumplir todos los requisitos previstos para la adjudicación de las parcelas de este reglamento.

## 3. *Definiciones.*

a. Persona usuaria: persona adjudicataria o titular de la licencia: Persona física o jurídica a favor de la cual, se constituye el derecho a usar y aprovechar el bien que se cede. A los efectos que aquí interesan, la persona beneficiaria de la cesión sobre el huerto.

b. Fruto: Rendimientos que se derivan del uso del huerto, esto es, los elementos que derivan de la siembra y tratamiento de la tierra, tales como verduras, frutas, hortalizas, etc.

c. Elementos comunes: Son los elementos naturales o dispuestos en la parcela donde se encuentran los huertos y que sirven a más de una de las personas usuarias o a todas en común, como son los pasillos, los vallados, las tuberías, los depósitos, pivotes de delimitación etc. Igualmente tienen consideración de elemento común los aperos de labranza y herramientas que se ponen a su disposición.

d. Responsabilidad: Se trata de la responsabilidad que recae sobre cada persona adjudicataria de los huertos, de forma individualizada y en relación con la porción de terreno que le corresponda.

e. Huerta ecológica: Porción de terreno individualizada, sobre la cual se constituye el derecho de la persona usuaria para el uso, disfrute y aprovechamiento, se denominan también huertos ecológicos de ocio.

f. Parcela: Terreno en donde están enclavados los huertos.

g. Familia-unitatea: Etxebizitza berean izatez eta zuzenbidez elkarrekin bizi diren pertsonak, alegia, bi ezkontideak edo izatezko bikotekideak (edo horietako bat, alargunduta, bananduta edo dibortziatuta egonez gero) eta adingabeko seme-alabak, etxebizitza berean bizi badira.

h. Interes-taldeak.

1. Beren ezaugarri bereziak direla eta, beste batzuen aldean gizarte-egoera ahulagoa duten pertsonak, hala nola langabetuak, RGI-hartzaileak, ezgaituak.

2. Interes berezikotzat hartzen diren kolektiboak, esaterako, irabazi asmorik gabeko elkarteak, baratzte sozialeko erabilerarako Udalarekin hitzarmena duten fundazioak, eskolak eta abar.

4. *Erabiltzaile-Komunitate eraketa.*

Behin betikoz esleipendun diren pertsonak derrigortuta egongo dira, batetik, baratzek kudeatzeko Erabiltzaile-Komunitate bat eratzea eta, bestetik, Zuzendaritza Batzorde bat izendatzera, elkartearen interesak kudeatuko eta ordezkatu dituen ordezkaritza-organoaren lanak egingo dituen, baztar nagusiaren xedapen eta jarraibideekin bat etorri.

Zuzendaritza Batzordearen barruan ondorengo kideak izango dira: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta gutxienez bokal bat eta gehienez hiru bokal. Eta bere eginkizunetako bat, udalarekin eta Baratzte Parke Sarea proiektuko beste eragile batzuekin bitartekari-lanak egitea izango da.

Horretaz gain, elkartearen xede izango dira Ordiziako Baratzte Parkearen erabilera zuzena ziurtatzea eta gutxieneko mantentze-lanak egitea.

5. *Lagapen-epaia.*

Lursailaren aprobetxamendua edo/eta erabilera eta beraz, udal-lizentzia urtebeteko epez emango da, eta epe hori gehienez hiru urte arte luzatu ahal izango da.

Luzapenak hitzartuta daudela ulertuko da baldin eta aldeetako baten aurreabisurik ez bada jasotzen emakida edo horren ondoko ondoko luzapenak amaitu baino hilabete bat lehenago.

Esleipendunak baratzek utzi egin beharko du lizentzia-epaia amaitu aurreko hilabetean, garbia eta hurrengo esleipendunak lantzeko prest.

6. *Erabilera-printzipio orokorrak.*

1. Zaintzeko eta mantentzeko printzipioa: Baratzetako erabiltzailearen betekizun nagusia izango da lagatzen zaion lursaila modu egokian zaindu eta mantentzea, eta behar bezalako arreta edukitzea hura erabiltzean, baratzek osasuntsu, apain eta landuta mantenduz.

2. Errespetu-printzipioa instalazioak erabiltzean: Baratzek bat lagatzen zaion pertsona orok ahalegina egin beharko du gainarakoei eragozpen, kalte edo galerarik ez eragiteko.

3. Salerosketarik ez egiteko printzipioa: Baratzek lagapen-hartzaile guztiak debekatua izango dute baratzetako produktuak xede komertzialerako edo ustiapen ekonomikorako erabiltzea.

4. Auto-hornikuntzaren printzipioa: Baratzek lantzetik sortzen diren produktuak erabiltzaileak edo haren familia-unitateak bakarrik kontsumitu ahal izango dituzte, eta ezin daitezke erabili etekin ekonomikorik jasotzeko.

5. Ingurumen-prebentzioaren printzipioa: Baratzek erabileraren onuradunak diren pertsonak ez dute erabiliko lurrik kalte larrikeria eragin diezaiokkeen ongarririk edo produktu fitosanitariorik, lurra bera edo egon litezkeen akuiferoak kutsatu baititzakete; beraz, lursailaren laborantza ekonomikoaren gaineko araudian azaldutako termino zehatzei jarraitu beharko zaie.

g. Unidad familiar. Personas que conviven de hecho y de derecho en una misma vivienda, teniendo la consideración de tales ambos cónyuges o parejas de hecho (o una de ellas en caso de viudedad, separación o divorcio) e hijas e hijos menores de edad que convivan en el mismo domicilio.

h. Grupos de interés.

1. Personas que por sus especiales características se consideran desfavorecidas respecto de otras, tales como estar en paro, percibir las AES, ser personas con diversidad funcional.

2. Colectivos que se consideran de especial interés tales como asociaciones sin ánimo de lucro, fundaciones que tengan convenio con el Ayuntamiento para el uso de huertas sociales, escuelas etc.

4. *Creación de Comunidad de Usuarías y Usuarios.*

Las personas adjudicatarias con carácter definitivo estarán obligadas a constituir una Comunidad de Usuarías/os para la gestión de las mismas, y a nombrar una Junta Directiva cuya composición por sexo deberá ser equilibrada, que será el órgano de representación que gestionará y representará los intereses de la asociación, de acuerdo con las disposiciones y directivas de la asamblea general.

La Junta Directiva estará integrada por presidencia, vicepresidencia, secretaria, tesorería y un mínimo de una vocalía y un máximo de tres. Y entre sus funciones será la de intermediar con el ayuntamiento y otros agentes del proyecto Baratzte Parke Sarea.

El objetivo de la asociación es certificar la correcta gestión de Ordizia Baratzte Parkea y hacer los trabajos mínimos de mantenimiento.

5. *Plazo de cesión.*

El aprovechamiento y/o uso del terreno y por ende, la licencia municipal, se concederá por periodos anuales, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de tres años.

Las prórrogas se entenderán acordadas si no mediara un preaviso de cualquiera de las partes con un mes de antelación a la finalización de concesión o de sus sucesivas prórrogas.

La persona adjudicataria deberá dejar, en el mes final del plazo de licencia, el huerto limpio y apto para ser cultivado por la siguiente adjudicataria.

6. *Principios generales de uso.*

1. Principio de conservación y mantenimiento: Será obligación principal de la persona usuaria de los huertos, la adecuada conservación y mantenimiento del terreno que se le ceden, debiendo aplicar la debida diligencia en su uso, manteniendo la salubridad, el ornato y el cultivo de las mismas.

2. Principio de respeto en el uso de las instalaciones: Toda persona que sea cesionaria de un huerto, deberá evitar molestias, daños o perjuicios a las demás.

3. Principio de no comerciabilidad: Las personas cesionarias de los huertos tendrán prohibido dedicar el cultivo de los mismos para fines comerciales o de explotación económica.

4. Principio de autoabastecimiento: Los frutos de la tierra que se originen por la siembra de los huertos, únicamente podrán ser objeto de consumo propio o de la unidad familiar, sin que puedan destinarse a percibir rendimientos económicos.

5. Principio de prevención ambiental: Las personas beneficiarias del uso de los huertos se cuidarán de no utilizar productos fertilizantes ni productos fitosanitarios que puedan provocar un grave perjuicio sobre la tierra, contaminando la misma y los acuíferos que puedan existir, en los estrictos términos expuestos en esta normativa sobre el cultivo ecológico del terreno.

### 7. Erregimen aplikagarria eta erregulazioa.

1. Baratzeak ustiatzeko erabilera-baimena eskatzaile guztien arteko lehiaketa bidez esleitu beharko da. Nolanahi ere, Ordiziako Udalak 3h) art.-an aipatutako interes-taldeentzat bereziki xedatutako lurzati batzuk gorde ahal izango ditu.

2. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.

3. Baratze komunitarioen esleipenari, jabetzari eta gozamenari aplikatuko zaion erregimena Araudi honetan aurreikusiten dena izango da.

4. Subsidiarioki, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean jasotako arauak aplikatuko dira, baita toki-entitateen Ondasunen Araudikoak ere.

### 8. Erabiltzaile eta 3h) art.-an adierazitako interes-taldeentzat emate-titulua.

Lizentziak ematen duen baratzearen erabilerarako eskubidea lagatu ezina da, eta bere lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean bakarrik izango du eragina. Erabiltzaileak ezingo ditu, inola ere, lizentziak emandako baimenaren erabilerrari lotutako eskubideak laga, zergapetu edo doan edo kostu bidez eman. Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori inola ere eskualdatu.

Lagatutako lizentziaren titulua «prekarioan» izango da erabiltzailearentzat, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatuak badaude, edozein unetan kendu ahal izango dio lizentzia edozein erabiltzailerari, Udalaren aldetik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Interes publikoko kausa justifikatuak izan daitezke, «baratzeak» programa ordezkatzeko duen edo harekin bateraezina den beste edozein udal programa onartzea, edo, baita ere, Udalak edo beste edozein Herri Administrazio hiri edo azpiegituren garapenerako edozein plan onartzea, baldin eta plan horrek berekin badakar baratzeetarako xedatutako lursailetan edozein zuzkidura publiko ezartzea. Kasu horietan, aipatutako planaren onarpenarekin batera, lursailak erabiltzea ahalbidetzen duten tituluaren balioa indargabetuko da, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Organo eskudunak, aipatutako lizentziak indargabe utz ditzake, lizentzian ezarritako baldintzak betetzen ez badira edota araudi honetan eta ezarritako prozeduraren arabera adjudikaziodunek bete beharrekoak gauzatzeko ez badira.

### 9. Baratzeen programaren funtzionamendurako jarraibideak.

Alkateak baratzeen programako jardueren alderdi orokorrei nahiz zehatzei buruzko jarraibideak eman ahal izango ditu, esaterako, lan egiteko erak, ordutegiak, labore-motak eta abar izatera orokorrez edo bereziz zehazteko. Baratzeen erabiltzaileek derrigor bete beharko dituzte jarraibide horiek eta, baita ere, Alkatetzak, Zinegotzi delegatuak edo horren ardura duten Udaleko langileek gai horren beraren gainean erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak.

## II. KAPITULUA

### ESLEITZEKO PROZEDURA

#### 10. Onuradun izateko baldintzak.

Baratzeak erabiltzeko lizentzien onuradun izan daitezke Ordiziako udalerrian erroldatuta dauden pertsonak baldin eta herrian benetan bizi badira gutxienez esleipen-deialdiaren iragarpena argitara eman baino bi urte lehenagotik, eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

### 7. Régimen aplicable y regulación.

1. La autorización de uso para la explotación de las huertas deberá adjudicarse mediante licitación entre todas las personas solicitantes. No obstante el Ayuntamiento de Ordizia podrá reservar algunas parcelas destinadas específicamente a los grupos de interés indicados en el art. 3h).

2. Ley 4/2005 de 18 de febrero, de igualdad de mujeres y hombres.

3. El régimen que se aplicará a la adjudicación, posesión y disfrute de los huertos comunitarios, será el previsto en la presente Normativa.

4. Subsidiariamente, se aplicarán las normas contenidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, así como las del Reglamento de Bienes de las entidades locales.

### 8. Título de concesión a usuarias y usuarios, y grupos de interés indicados en el art. 3h).

La licencia otorga un uso del huerto intransferible, y solo producirá efectos mientras concurren las condiciones establecidas para su concesión. La persona usuaria no podrá en ningún caso, ceder, gravar o disponer a título oneroso o gratuito de los derechos que se derivan de la utilización de uso autorizado por la licencia. Dichos derechos no podrán ser en ningún caso objeto de transmisión a terceras personas.

El título de la licencia concedida será «a precario» para el o la usuaria, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público revocar la licencia concedida en cualquier momento sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

Pueden ser causas justificadas de interés público, la aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de «huertos», o también la aprobación de cualquier plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos. En estos casos, la aprobación del referido plan conllevará el dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos, sin derecho a indemnización alguna.

El órgano competente, también podrá dejar sin vigencia las citadas licencias, si se incumplieran las condiciones que motivaron su concesión, o las obligaciones que recaigan sobre los y las adjudicatarias, relacionadas en esta normativa y de acuerdo con el procedimiento establecido.

### 9. Instrucciones de funcionamiento del programa de huertos.

El Alcalde podrá dictar instrucciones sobre aspectos generales o concretos de la actividad del programa de huertos a fin de disciplinar formas, horarios, tipos de cultivos etc. con carácter general o especial y que serán de obligado cumplimiento por las personas usuarias de los huertos, así como las concretas ordenes o indicaciones que sobre el mismo asunto, la Alcaldía, la Concejalía delegada o el personal que se encarga del Ayuntamiento realice verbalmente a las y los usuarios.

## CAPÍTULO II

### PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

#### 10. Requisitos para ser persona beneficiaria.

Podrán ser beneficiarias o beneficiarios de las licencias de ocupación de los huertos, las personas empadronadas en el Municipio de Ordizia y que efectivamente residan en la localidad durante al menos dos años antes de la publicación del anuncio de la convocatoria para la adjudicación, y que cumplan además con los siguientes requisitos:

a) Baratzean garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai izatea.

Adingabeen eskabideek aitaren, amaren edo tutoreen abala dutela aurkeztu beharko dira, eta pertsona helduak izango du erantzukizuna, Araudi honen ondorioetarako.

b) Ordiziako Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.

c) Beste baratze baten erabiltzaile den familia-unitateko kidea ez izatea.

d) Eskatzaileak edo bere familia-unitateko kideren batek ez edukitzea, ez jabetzan, ez gozamen-eskubidean edo alokairuan nekazaritza-jarduerarako egokia den izaera landatarreko lursailik, Goierri eskualdean.

e) Zigorrik ez izatea lehenago beste baratze ekologiko baten jabe izan delako, Araudi honetan aurreikusitako araurraketak bat dela medio.

f) Genero-indarkeriatik Administrazio-zehapenik edo zigor penalik ez izatea, zehapen edo zigor horrek dirauen denboran.

Betekizun hauek betetzeaz salbuetsita egongo dira, 3h) artikuluko 2 idatzi-zatian aipatutako kolektiboak. (f puntua izan ezik).

#### 11. Lizentziak emateko prozedura.

Udalak, 3h) artikuluko 2 idatzi-zatian aipatutako kolektiboarentzat, baratze kopuru bat gordeko du.

Taldeek emakumezko eta gizonezkoen parte hartze orekatu bat bultzatu behar dute.

Gainerako plazak esleitzeko, Udalak beretzat gordetzen du, baratze hauek esleitzeko orduan, egoera ekonomiko larriago batean aurkitzen diren bizikidetzak-unitateei lehentasuna emateko eskubidea. Azken kasu horretan, Udaleko gizarte-zerbitzuen txosten egokia eskatuko da. Udaleko gizarte-zerbitzuen bitartez baratzea esleitzeko ezartzen diren irizpideak bizikidetzak-unitatearen diru-sarrerak eta hori osatzen duen pertsona kopurua izango dira.

Baratzeen esleipenean interesatuta dagoenak eskabide bat aurkeztu beharko du Udal Erregistroan, horretarako inprimaki ofizialari jarraiki. Eskabidearekin batera, inprimaki normalizatu horretan eskatzen diren agiriez gain, ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko du:

a) NANaren edo horren ordezkoko den beste lege-agiri baten fotokopia.

b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak edo zinpeko aitortpena.

Udalak ofizioz egiaztatuko du errolatze eta erresidentzia benetan bi urtetik gorakoak direla, arau-hausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga-betebeharretan edo beste mota baten betebehar guztietan egunean dagoela.

Herritar guztiei irekitako deialdi baten bitartez aurkeztuko du Udalak ekimen hau, eta parte hartu ahal izateko baldintzak eta horren ezaugarriak azalduko dira bertan, informazioa irisgarria dela talde guztietara bermatuz eta hizkuntza barneratzaile bat erabiliz. Une horretatik aurrera, ekimen honetan parte hartu nahi duten pertsona guztiek eskabide formal bat aurkeztu beharko dute Udaletxean, eta Udalak hartzen den erabakia jakinarazteko obligazioa izango du.

Udaletxeak eskaeren jarraipen-txosten bat egingo du. Genero arrakalak dauden jakiteko, datuak sexuen arabera jasoko ditu eta beharrezkoa baltiz, osabidezko neurriak hartuko lituzke. Kasu horretan, sustapenezko neurri zuzentzaileak proposatu

a) Encontrarse con capacidad física para la realización de las labores agrícolas y de cultivo a desarrollar en el huerto.

Las solicitudes de menores de edad deberán venir avaladas por la madre, el padre, o tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de esta Normativa.

b) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Ordizia.

c) No ser ningún miembro de la unidad familiar usuaria o usuaria de otro huerto.

d) No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento ni quien lo solicita ni ningún miembro de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en la comarca del Goierri.

e) No haber sido sancionada o sancionado en razón a la posesión anterior de huertos por incumplimiento previsto en la presente Normativa.

f) No estar incurso en sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por violencia de género (durante el período impuesto en la correspondiente sanción).

Del cumplimiento de estos requisitos quedarán exentos los colectivos a que se hace referencia en el apartado 2 del art. 3h) (a excepción del punto f).

#### 11. Procedimiento para la concesión de licencias.

El Ayuntamiento destinará un número de huertas a los grupos de interés a los que se hace referencia en el apartado 2 del art. 3h).

Los grupos habrán de promover una participación equilibrada de hombres y mujeres.

Para adjudicar las restantes plazas, el Ayuntamiento se reserva el derecho a priorizar la concesión de estas huertas a aquellas unidades convivenciales que puedan encontrarse en una situación económica más delicada. En este último caso, se solicitará el consiguiente informe de los servicios sociales del Ayuntamiento. Los criterios que se establecen para la adjudicación de la huerta por la vía de los servicios sociales municipales serán el nivel de ingresos de la unidad convivencial, el n.º de personas que forman parte de la misma.

La persona interesada en la adjudicación de los huertos deberá presentar solicitud en el Registro municipal, con arreglo al modelo oficial. A la solicitud, donde se especificará si la solicitud la realiza una mujer o un hombre, deberá acompañar, además de los documentos que se exijan en el aquel modelo normalizado, la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos o declaración jurada de que cumple los requisitos establecidos en el Artículo anterior.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y la residencia efectiva desde hace dos años, la ausencia de infracciones cometidas y el estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.

El Ayuntamiento presentará esta iniciativa a través de una convocatoria abierta a toda la ciudadanía en la que se explicarán las características y condiciones para poder tomar parte en la misma, garantizando que la información es accesible a todos los colectivos y utilizando un lenguaje inclusivo. A partir de ese momento, todas las personas que quieran tomar parte en la iniciativa deberán presentar una solicitud formal en el Ayuntamiento, quien tendrá el deber de comunicar la resolución que se adopte.

El Ayuntamiento realizará un informe de seguimiento de las solicitudes, usando datos desagregados por sexo para conocer si existen brechas de género y resulta necesario introducir medidas compensatorias. En cuyo caso propondrá y promoverá ac-

eta bultzatuko lituzke, jarduera eremu horretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.

#### 12. Eskumena eta prozedura.

Lizentziak emateko prozedura Alkatearen ebazpenarekin amaituko da.

Deialdi publikoa egingo da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udalaren webgunean eta Iragarki Taulan argitaratutako iragarrien bidez eta gutxienez hamar egun naturaleko epea ezarriko da eskabideak aurkezteko. Ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko da, baremazioa eta erreserbarako daudenen izenak gehituta, eta zerrenda hori Iragarki Taulan eta Ordiziako Udalaren webgunean argitaratuko da.

Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte gehienez bost egun naturaleko epean. Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrendaren ebazpena egingo da, baremazioa azalduta. Baremazioan berdinketarik baldin badago, jendaurreko zozketa egingo da, zozketako data behar bezala iragarri ondoren.

Behin balorazioa eta, behar izanez gero, zozketa eginda, esleipendunen zerrenda eta erreserben behin betiko zerrenda Udaletxeko Iragarki Taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

#### 13. Esleipena eta ordezkoen zerrenda.

Esleipendunei ematen zaien lizentziak argi azaldu beharko du zein diren baratzearen xedea, definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta lizentziaren indardaldia.

Eskabidea gutxi balioetsi zaielako baratzeren bat esleitzeko lizentziarik eskuratzetik izan ez duten pertsonak, jasotako balorazioaren arabera, ordezkoen zerrenda batean sartuko dira, baratze mota bakoitzaren barruan lortu duten balioespenaren arabera. Ordezkoen zerrenda hori bajak betetzeko erabiliko da baldin eta lizentziaren bitartez jasotako eskubidea nahita edo ezinbestez galtzen bada edo eskubide horri uko egiten bazaio; kasu horietan, hurrengo hautagaiari deituko zaio, aipatutako zerrendan duen ordenaren arabera, lizentzia indarrean dagoen epearen barruan eta laborantzarako aldi emankorren barruan.

Baratzearen erabilera baimentzen duen lizentzia esleitu ondoren, adjudikaziodunak autolikidatu egin beharko du urteko kuotaren kopurua eta bermeari dagokion zenbatekoa jarri, esleitutako lizentzia jaso ahal izateko. Esleipenerako epea igaro ondoren itzuli egingo da bermea, baldin eta denboraldi berri horretarako beste baratze baten esleipendun izan ez bada.

3h) artikuluan aipatutako interes taldean edozein ordainketa egitetik eta fidantza aurkezteko eginbeharrez salbuetsita egongo dira.

#### 14. Baremazio-irizpideak.

Baremazio-irizpideak dagokion lehiaketaren deialdian zehaztuko dira.

Lurzatiak esleitzeko baremazio-irizpideak finkatuko dituzten printzipio nagusiak.

Ordiziako Baratze Parkean era guztietako jendea bil dadila sustatuko da.

Berdintasunaren ikuspegitik, ordezkariak justua bermatzeari begira, eskatzaileen sexu-proporzio berdinetan egingo da emakida, bai lehentasuna izango duen taldearen barruan eta bai gainerako taldeetan ere.

Kultura eta hizkuntza aldetik ere dibertsitatea sustatzeari begira, irizpide iraunkorrak barneratuko dira baratzeak abian jarri ondoren, eta horretarako, jarduera desberdinak antolatuko dira.

tuaciones y medidas correctoras de fomento, velando por el impulso de la igualdad de mujeres y hombres en este ámbito de actuación.

#### 12. Competencia y procedimiento.

El procedimiento de concesión de licencias finalizará con una Resolución de Alcaldía.

Se efectuará una convocatoria pública mediante anuncios publicados en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página Web y en el tablón de edictos, otorgando al menos un plazo de diez días naturales para presentar instancias. A continuación, se aprobará la lista provisional de personas admitidas y excluidas, conteniendo la baremación y lista de reserva, que se publicará en el Tablón de anuncios y en la página web de Ayuntamiento de Ordizia.

Por las personas interesadas se podrán presentar reclamaciones en el plazo máximo de cinco días naturales. Finalizado dicho plazo, y resueltas las reclamaciones recibidas, se dictará resolución que contenga la lista definitiva de personas admitidas y excluidas con la baremación. En caso de empates en la baremación se efectuará un sorteo público, cuya fecha se anunciará oportunamente.

Efectuada la valoración y el sorteo en su caso, se publicará la lista de adjudicación y lista de reserva definitiva, publicándose en el Tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento.

#### 13. Adjudicación y lista de suplente.

La licencia que se conceda a las personas adjudicatarias, deberá especificar la finalidad, la definición y emplazamiento del huerto, los derechos y obligaciones del o de la usuaria y la vigencia de la licencia.

Aquellas personas que por menor valoración de sus solicitudes, no hubieran sido beneficiarias de la obtención de una licencia para la adjudicación de algún huerto, pasarán a integrar una lista de suplentes para cada uno de los tipos de huertos, en función de la valoración que hubiesen obtenido y que será utilizada para cubrir bajas para los casos de renuncia o pérdida voluntaria o forzosa del derecho otorgado a través de la licencia, realizándose un llamamiento a la siguiente candidata o candidato según el orden que ocupara en la lista referida, dentro del periodo de vigencia de la licencia y del periodo fértil del cultivo.

Una vez adjudicada la licencia que autoriza el uso del huerto, la persona adjudicataria deberá autoliquidar el importe de la cuota anual y depositar el importe de la fianza correspondiente establecido a fin de recibir la correspondiente licencia concedida. La fianza se devolverá una vez transcurrido el plazo de adjudicación, sin haber resultado con adjudicación de otro huerto para esa nueva temporada.

Los grupos de interés a que se hace referencia en el art. 3h) quedarán exentos de pago alguno y de la presentación de fianza.

#### 14. Criterios de baremación.

Los criterios de baremación se especificarán en la convocatoria para la licitación correspondiente.

Principios generales para establecer los criterios de baremación para la adjudicación de las parcelas.

Se promoverá que en el Baratza Parkea de Ordizia se reúna todo tipo de gente.

Desde el punto de vista de la igualdad, con el fin de garantizar una representación justa, la concesión se hará en proporciones sexuales iguales de los solicitantes, tanto en el grupo prioritario, como en los demás grupos.

Para Promover la diversidad cultural y lingüística, se introducirán los criterios sostenibles una vez se hayan puesto en marcha los huertos, organizando diferentes actividades.

Baratzeak hiru taldetan sailkatuko ditugu:

Talderen batean lurzati guztiak betetzen ez badira, beste talde batzuei irekiko zaizkie.

1. taldea:

5 lurzati (ezgaituentzako bi lurzati barne), 3h) artikuluko 1 idatz-zatian aipatutako interes-taldeei esleituko zaizkie.

2. taldea:

2 lurzati, 3h) artikuluko 2 idatz-zatian aipatutako interes-taldeei esleituko zaizkie.

3. taldea:

25 lurzati gainerako herritarrei esleituko zaizkie.

Lurzatiak ondorengo puntuazioaren arabera esleituko dira:

\* 1. taldea:

3h) artikuluko 1 idatz-zatian aipatutako interes-taldean dauden pertsonen kasuan.

– Familia-unitateko kide guztiak langabezian egotea: 4 puntu.

– Familia-unitateko kideren bat langabezian egotea: 2 puntu.

– Familiaren diru-sarrerak, 0 eta 12 puntu artean, ekitaldi honetarako gizarte-zerbitzuen alorreko laguntzetarako xedatutakoaren arabera: 2 puntu.

\* 2. taldea:

3h) artikuluko 2 idatz-zatian aipatutako interes-taldeen kasuan.

– Baliabide gutxi dituzten edo premia bereziak dituzten pertsonen lan egiteko helburu soziala duten elkarteak: 3 puntu.

– Ingurumen-helburuekin loturiko helburu soziala duten elkarteak: 2 puntu.

– Gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna bultzatzea helburu duten elkarteak: 1 puntu.

– Udalarekin hitzarmena izatea: 2 puntu.

\* 3. taldea:

Gainerako herritarren kasuan.

– % 33ko elbarritasuna edo handiagoa duten pertsonak: 2 puntu.

– Familia-unitatearen diru-sarrerak balioetsiko dira.

#### 15. *Lizentziak eskualdatzea eta iraungitzea.*

Baratzeak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

a) Ezin zaizkio hirugarren bati eskualdatu.

b) Epea betetzean iraungiko dira.

c) Ezeztatu edo baliogabetu ahal izango dira:

1. Bi aldeak ados jarrita.

2. Ebazpen judizial baten bitartez.

3. Esleipendunak uko egiteagatik.

4. Araudi honetan edo dagokion lizentzia ematen duen ebazpenean jasotako betebeharrak eta xedapenak ez betetzeagatik, aurrez interesatuari entzuteko aukera eman eta espedienteaz izapidetu ondoren.

5. Langabetuek urtea bukatu aurretik (abendua) langabezia-egoeran jarraitzen dutela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute Udaletxean. Bere lan-egoera aldatzen bada, baratzea utzi egin beharko dute eta itzarote-zerrendara igaroko dira.

6. Baratze horiek kokatuta dauden eremurako aurreikusitako antolamendu xehakaturako agiriak onesten direnean.

Las huertas las clasificaremos en tres grupos:

En caso de no llenarse las parcelas por algún grupo, se abrirán a otros grupos.

Grupo 1:

5 de las parcelas (incluidas las dos huertas para personas con diversidad funcional) se destinarán a grupos de interés indicados en el apartado 1 del art. 3h).

Grupo 2:

2 de las parcelas se destinarán a grupos de interés indicados en el apartado 2 del art. 3h).

Grupo 3:

25 de las parcelas se destinarán al resto de la ciudadanía.

Las parcelas se adjudicarán según la siguiente puntuación:

\* Grupo 1:

En el supuesto de grupos de interés indicados en el apartado 1 del art. 3h).

– Estar todos los y las miembros de la unidad familiar en situación de desempleo: 4 puntos.

– Estar alguien de la unidad familiar en situación de desempleo: 2 puntos.

– Ingresos familiares, de 0 a 12 puntos según lo dispuesto para ayudas en materia de servicios sociales para este ejercicio: 2 puntos.

\* Grupo 2:

En el supuesto de grupos de interés indicados en el apartado 2 del art. 3h).

– Asociaciones cuyo objetivo social sea trabajar con personas con pocos recursos o necesidades especiales: 3 puntos.

– Asociaciones cuyo objeto social esté relacionado con fines medioambientales: 2 puntos.

– Asociaciones que tienen en sus objetivos promover la igualdad de mujeres y hombres: 1 punto.

– En el caso de colegios: Estar trabajando la Agenda 21: 2 puntos.

\* Grupo 3:

En caso del resto de la ciudadanía.

– Personas con minusvalía igual o superior al 33 %: 2 puntos.

– Se valorarán los ingresos de la unidad familiar.

#### 15. *Transmisibilidad y extinción de las licencias.*

Las licencias que concedan el derecho al uso de los huertos:

a) No serán transmisibles a terceras personas.

b) Se extinguirán por vencimiento del plazo.

c) Podrán ser revocadas o anuladas:

1. Por mutuo acuerdo.

2. Por resolución judicial.

3. Por renuncia de la persona adjudicataria.

4. Por incumplimiento de las obligaciones y disposiciones contenidas en el presente Reglamento o en la resolución por la que se conceda la correspondiente licencia, previa la tramitación de expediente con audiencia a la persona interesada.

5. Las personas en desempleo deberán presentar en el Ayuntamiento antes de la finalización del año (diciembre) certificado de seguir en la misma situación de desempleo. En caso de cambiar su situación laboral deberán dejar el huerto y pasarán a la lista de espera.

6. La aprobación de documentos de ordenación pormenorizada previstos para el área en donde se ubican las huertas.

Lizentziak indargabetzen badira, Udalaren partetik ez da inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Esleipenduna hiltzen bada, emakida iraungita geratuko da eta haren ondorengoek ez dute inolako eskubiderik izango. Udalak ikusten badu esleipen-aldian pertsona horrek baratzea egoki kudeatu duela, haren alargunari utziko dio baratzearen erabilera, horretarako eskabidea egina izanez gero, baina nolahi ere Udalak onetsi egin beharko du.»

### III. KAPITULUA

#### ERABILERA-BALDINTZAK

##### 16. Erabilera-arauak.

1. Baratzeak erabiltzeko baimenen onuradunek honako erabilera-arau hauek bete beharko dituzte:

– Administrazio-baimenean zehazten diren landare-espezieak landatzeko erabiltzea.

– Nekazaritza ekologikoaren irizpideak erabiltzea, eta norberaren haziak edo jatorri ekologikoko landareak edo haziak erabiltzea (hobe tokikoak bertakoak badira). Ongarri organikoak bakarrik erabili ahal izango dira.

La revocación de las licencias lo será sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

En caso de fallecimiento, se extinguirá la concesión y sus sucesores y sucesoras no tendrán ningún derecho. Si el Ayuntamiento viera que durante el tiempo de la adjudicación esa persona ha gestionado correctamente el huerto, le dejaría el uso del huerto a la pareja, si hubiera alguna solicitud de ese tipo, siempre con la aprobación del Ayuntamiento.»

### CAPÍTULO III

#### CONDICIONES DE USO

##### 16. Normas de uso.

1. Las personas beneficiarias de las autorizaciones sobre los huertos, vendrán obligadas al cumplimiento de las siguientes normas de uso:

– Destinar los huertos al cultivo y plantación de aquellas especies vegetales que, en su caso, se especifiquen en la autorización administrativa.

– Utilizar criterios de agricultura ecológica, utilizar su propia semilla, o bien planta o semilla de procedencia ecológica, preferentemente de variedad autóctona local. Sólo se podrán utilizar abonos orgánicos.

| Produktuak edo lanak<br>Productos o trabajos              | Debekatuta daude<br>Están prohibidos  | Baimenduta daude<br>No están prohibidos  |
|---|---|--|
